

(http://www.etxeonenak.com/eu/)



(http://hernanikokronika.tumblr.com/)



albistea//EREÑOTZU

# Urumea eta Leitzaran ibai inguruko emakumeen istorio eta kontakizunak, gaur

*Ereñotzuko Auzo Etxean izango da hitzaldia, iluntzeko 19:00etan hasita.*

**HERNANI**
**2014/03/27 00:00 Osteguna**

Urumea eta inguruko erreken bueltan sortutako ondare kulturalari buruz bi hitzaldi antolatu dituzte Ereñotzun. Donostiako Haritzalde taldeak, Ura, ibaiak eta herriak erakustea jarri du San Telmo museoan. Honen harira, egitarau zabala proposatu dute Donostialdean, eta Ereñotzuko Auzo Udalak proposamen horiekin bat egin eta hi-tzaldiak antolatu ditu.
Leitzaran eta Urumea ibaietan emakumeak busti egiten dira hitzaldia da aurrenekoa. Ereñotzuko Auzo Etxeko aretoan emango dute gaur, eta bertan kontatuko dituzte Leitza, Areso, Goizueta eta Aranoko emakumeek lantaldean jasotako istorio eta kontakizunak. 19:00etan.

## Industriaren aztarnak, datorren astean

Urumea ertzeko industria ondarearen aztarnak da antolatu duten bigarren hitzaldiaren izenburua. Alfredo Moraza, Aranzadi Zientzia Elkarteko arkeologa izango da hizlaria. Hitzaldia Auzo Etxeko areto nagusian emango dute, asteazkenean, iluntzeko 19:30etan hasita.

Atsegin dut 0 Tweet 1

**Izena***

**Eposta helbidea***

**Iruzkina***

Bidali Aurreikusi

| Gaur | Bihar | Etzi |
|---|---|---|
| max:20C° | max:17C° | max:10C° |
| min:11C° | min:8C° | min:6C° |

(http://www.euskalmet.euskadi.net/s07-5853x/eu/meteorologia/meteodat/zona_1.apl?e=8&z=2&dd=0&nombre=Hernani)
(http://www.euskalmet.euskadi.net/s07-5853x/eu/meteorologia/meteodat/zona_1.apl?e=8&z=2&dd=0&nombre=Hernani)Aemet (http://www.aemet.es) eskainitako datuak

**HERNANI**



(/m/aldizkaria/None/pdf/apirilak%2

**Apirilak 18**



(http://www.garraioahobetzen.net/)

Gida komertziala (/gk/)